

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Ezkutuan

Izaro Caballero Gómez

Zuhaitzen sustraiek ez dute interneten beharrik.

Negarra egiterakoan jada ez dago inor.

Masailak hotz.

Muxu falta.

Maitasun falta?

Aitzinean elkarrekin bazkaltzea altxorra
gaur, bakarka egotea normala.

Zer gertatu da?

Pertsona masa hilak

erosotasunean,

inkontzientziaren nabarmena dago

eta gure irrikak desegiten dira.

Galdera da: Gure erabakia?

Erantzuna, aldiz, aurkituko ez duguna
itzalita baitago gure garuna.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA POESIA 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Babesa behar dugunean
ihes egitea errazegia,
baina ez dakizuna da
besarkada bat dela
ametsetan desiratzen duzuna.
Errealitatera pasa ezin,
zer egin dezaket?

Maitasunak bueltan dakar
ahaztuta utzi den hori...
Beraz, agian bada izpi bat,
gogoraraztea atzean utzitakoa
elkarbatuta bizitzea
eta ez

ezkutuan.